**Abajo en castellano…**

**RI topaketako parte-hartzaileei:**

Uztaila hasieran, Amaraunak, RI-eko web gunean, ekainak 29, Antonio Hidalgok publikatutako “Mujeres, hombres y viceversa” izeneko artikulua jasotzen du. Asanbladan gaia landu eta zenbait pertsonek artikulu eta bideoan egindako adierazpenek eragindako mina adierazten dute. Erasotuak sentitzen dira, bai beraiek baita lotura duten mugimendu sozial bat, feminismoa.

Amaraunako asanbladak min hori zaindu nahi du. Horregatik, RI-eko topaketen antolatzaileei zainketa hori eskatzea erabakitzen da. Lehenik, bilera bat izatea eskatzen da, eta RI-etik bilera informal bat egiteko proposamena egiten zaigu, haien taldeko 2 pertsona amaraunatik pasa behar direlako. Bilera hori egitea erabakitzen da, beranduago agian bilera formal bat egiteko ideiarekin.

Uztailak 17ko bilera informal horretan, Amaraunako parte-hartzaileetako batzuk, pertsonalki, zenbait aukera adierazi zituzten, hala nola, Amaraunak RIen web gunean testu bat idaztea, artikuluaren berridazketa inor erasotu gabe, Antonio topaketara ez etortzea edota Antoniorekin hitz egiteko bilera bat egitea. Hitz egindakoarekin, RIko web gunea kudeatu edo edukiak publikatzeko erabakia hartzen duen taldearekin kontaktatzea oso zaila delaren sentsazioa geratzen zaigu. Bilera honen ondoren, Amaraunaren asanbladako parte handi batek RIen partetik enpatia sentitzea behar du, espazio honetan egondako norbaiten irain eta desprezioek eragindako minarekiko enpatia hain zuzen ere.

Uztailak 21ean, RIen partetik berririk ez genuenez, proposamen formal bat egitea erabakitzen dugu. Hain zuzen, RIeko web gunetik artikulua eta bideoa kentzea eskatzen dugu, eta posizio ideologiko berdinak mantenduz, irain eta desprezioetan sartzen ez den artikulu bat publikatzea. Modu honetan, RI sentikorra zela eta gure baloreak zaindu nahi zituela antzemango genuke.

Gai honetan, feminismoa, anti-patriarkatua, Amaraunako asanbladako gehiengoaren eta RIen diskurtsoak desberdinak dira, baina hala ere, zuen ideiak errespetatzen ditugu, eta errespetu horretatik, egin nahi dizuegu harrera.

Inoiz ez dugu eskatu artikulu hori ez zabaltzea, hor ez gara sartzen... bakarrik, elkarrekin bidea egin nahi duten bi kolektibok, amankomunean dauzkagun gauzetan errespetatzea eta amankomunean ez dauzkagunetan elkar zaintzea. Hortik jaio zen gure eskaera.
RIek Amaraunaren ateak zabalik dituela adierazi nahi dizuegu, beti ere talde bezala aurkitzen ari garen mugak errespetatuz. Topaketaren leku aldaketak eragindako arazoak ulertzen ditugu.

Ez dugu presarik, baliteke egun, hilabete edo urte batzuk barru elkar-ulertzea; garrantzitsuena, harremanean gauden bi kolektibo garen heinean, elkar ulertu, errespetatu eta zaindu ahal izatea da. Errespetuzko leku horretatik, hemen gaude.

**A las personas participantes en el encuentro de RI:**

A principios de julio, Amarauna recibe el artículo “mujeres, hombres y viceversa” de Antonio Hidalgo publicado el 29 de junio en la web de RI. Se trata el tema en asamblea y algunas personas del grupo manifiestan su dolor ante lo expuesto en dicho artículo y vídeo. Se ven atacadas tanto ellas como un movimiento social al que están ligadas, el feminismo.

La asamblea de Amarauna quiere cuidar ese dolor. Por eso, se decide solicitar a la organización del encuentro de RI ese cuidado. Primeramente, se solicita tener una reunión y desde RI se nos propone una reunión informal, ya que 2 personas de su grupo se pasan por Amarauna. Se decide hacer esa reunión, quizá luego para hacer otra formal.

En esa reunión informal el 17 de julio, parte de las personas de Amarauna que acuden a esa reunión lanzan posibles propuestas a título personal, entre ellas la de subir un texto de nuestra parte a la web de RI, la reescritura del artículo sin atacar a nadie, que no viniese Antonio al encuentro o juntarnos con Antonio para hablarlo. Tras la reunión, tenemos la sensación de que es muy complicado ponerse en contacto con el grupo que gestiona o decide sobre los contenidos que se publican en la web de RI y continuamos con la necesidad de sentir empatía desde RI a este dolor, causado por los insultos y desprecios de alguien que ha estado en este espacio y forma parte de RI.

El 21 de julio, al continuar incomodos para realizar el encuentro y queriendo resolver cuanto antes, decidimos haceros una propuesta formal. Esta consiste en la petición de que ese artículo y video se retire de la web de RI, y se pueda transformar en otro artículo que tenga las mismas posiciones ideológicas, sin entrar en el insulto y los desprecios. De esa manera, desde Amarauna se podría sentir que RI es sensible y tiene el anhelo de cuidar nuestros valores.

Aunque en este tema, feminismo, anti-patriarcado, los discursos de RI y de la mayoría de la asamblea de Amarauna sean diferentes, respetamos vuestras ideas y desde ese respeto queremos acogeros.
Nunca se ha pretendido que ese artículo no se difunda, ahí no entramos… tan solo, que dos colectivos que desean caminar juntos en lo que coinciden, puedan sentir el respeto y el cuidado mutuo en lo que nos diferencia. De ahí esa petición.

Queremos transmitiros que RI tiene abiertas las puertas de Amarauna, dentro del respeto a los límites que como grupo estamos encontrando. Acogemos las molestias o dificultades que se han podido causar con el cambio de sitio del encuentro.

No tenemos prisa, quizá encontremos el entendimiento en unos días, meses o años, lo importante es que como dos colectivos que se relacionan, podemos entendernos, respetarnos y cuidarnos. Desde este lugar de respeto, aquí estamos.